



Frantzisko Xabier María Munibe Idiakez, tituluz 8. Peñafloidalako kondea, 1729ko urriaren 23an Bergaran jaio zen, eta 1785eko urtarrilaren 13an zendu zen. Euskal idazle eta musikagilea izan zen. Euskal Herrian, ilustrazioaren ideiak zabaldu nahian, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen sortu zuen.

Azkoitiko jesuitekin egin zituen lehen ikasketak, 1742tik aurrera Frantziako Toulousen zientzia ikasketak egin zituen, Zientzietan eta Arte Ederretan prestakuntza ona lortuz. 1747an aita hil zitzaion eta Azkoitira itzuli zen.

1748. urtean, Areizagako baroiaren alaba, María Josefa Areizagarekin ezkondu zen. Ezkon berriak, Insausti Jauregian bizi izan ziren 1767. urte arte. Peñafloidalako Kondea oso ezaguna izan zen eta kargu politikoak izan zituen; Azkoitiko alkate izan zen, 1747- 1748 urteetan, eta berriz 1755ean eta 1765ean. Gipuzkoako Ahaldu Nagusia izan zen 1746, 1750, 1754, 1758 eta 1761. urteetan. 1758an diputatu Madrilgo gorteetan.



Solasaldiak antolatzen zituen bere etxean, eta bertara biltzen ziren probintziako aitonen semeak eta jakituria handiko gizonak, hasieran gizarteko gaiez hitz egitera, eta geroago baita ere zientzia gaiez, literaturaz, filosofiaz eta historiaz. Azkoitiko zalduntxoak izena jarri zitzaion. Igandetan musika eta antzerki lanak egiten zituzten.

1764an “El borracho burlado” antzezlan argitaratu zuen. Erljio kutsuko kanta antzeztuak dira, gabonetarako idatziak. Gabon-sariak: bertsotan ematen den umorezko opereta da. Musika ere konposatu zuen: Irten ezazu, Adio provintziya, Aita gurea.



XVIII. mendeko ilustrazioak Euskal Herrian izandako eredu da Xabier Munibe.